



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Diputatu Nagusia

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza  
Dirección Foral de Participación Ciudadana

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FORU ZUZENDARITZAREN PROGRAMA

2012-2015

2012ko martxo



## **AURKIBIDEA**

Helburu estrategikoa .....	2
Helburu orokorra.....	2
1. Proiektu estrategikoak .....	3
2. Parte hartzearen zeharkakotasuna Foru Aldundian .....	5
3. Komunikazioa, feedback-a eta zuzeneko eragina .....	7
4. Udalak .....	9
5. Herri erakunde eta mugimenduak.....	11

---



### **Helburu estrategikoa:**

Parte hartzeko demokrazian aurrerapausoa egitea eta gipuzkoarrek erakundeetako zereginetan eta lurraldeko proiektuetan parte hartzeko eta erabakietan eragiteko gaitasuna sustatzea. Herritarrek parte hartzea naturaltasunez bizitzea, eta lurraldea kudeatzeko garaian, herritarren eta erakundeen arteko harremanetan elementu eta eskubide nagusia izatea.

### **Helburu orokorrak:**

1. Lehentasunezko proiektu estrategikoen aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiak izango duen jarrera herritarrekin batera zehaztea eta herritarrek kontzientzia hartzea erabakian parte hartzea oinarrizko eskubidea dela eta lortzea posible dela guztion borondatearekin.
2. Kabineteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte hartzea eta beste zeharkakoak modu integralean eta departamentu bakoitzetik lantzeko gaitasuna sustatzea eta laneko sisteman integratzen hasten dela bermatzea.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta herritarren artean elkarrizketa zuzena izateko sistema bat martxan jartzea, herritarrekiko komunikazio iraunkorraren bidez, zein herritarrek erakundearen lanari buruz egingo duten feedback-aren bidez.
4. Herritarren parte hartzeko alorrean udalen lana artikulatzea eta sustatzea, udalen arteko sarea sortuz eta elkarrengandik ikasiz.
5. Herri erakunde eta mugimenduekin elkarrizketarako guneak zabaltzea eta parte hartzea sustatzeko gaitasuna indartzea.

Plan honek 5 ardatz izango ditu:

- 1. Proiektu estrategikoak**
- 2. Parte hartzearen zeharkakotasuna Foru Aldundian**
- 3. Komunikazioa, feedback-a eta zuzeneko eragina**
- 4. Udalak**
- 5. Herri erakunde eta mugimenduak**



## **1. Proiektu estrategikoak**

Ardatz honetan bi helburu orokor identifikatu dira. Lehenengoak Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitako parte hartze prozesuekin eta kontsultekin du zerikusia. Bigarrenak, berriz, izaera irekia izango du, hau da, herritarrek egindako eskaerei erantzungo die foru arau berriaren esparruan.

Lehenengo kasuan martxan jarriko diren prozesuek Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralderako identifikatutako lehenetasunei erantzungo die. Batetik, lurraldea osotasunean hartuko dutenak (hondakinen tratamendu sistema esate baterako) eta bestetik, herri batzuei eragindakoak edota Gipuzkoako ingurune bati eragindakoak (esate baterako Pasaia badiaren biziberritzea, edo autopista elektrikoa eragiten dien herriak).

Kasu guztietan, lan estrategia moduan, talde eragile bat osatuko da hasieratik inplikaturako ezinbesteko subjektu instituzional eta sozialekin. Kasu bakoitzean talde eragile horrekin parte hartzeko prozesua diseinatuko da. Prozesu horiek kontuan hartuko dituzte tartean dauden eragile publiko instituzionalak eta pribatuak (udalak, elkarteak, enpresak, eta abar) eta herritarren parte hartze zuzena bermatuko dituzten metodologiak, denborak, informazio moduak eta mekanismoak, parte hartzea eta posizionamendua ezarriko dituzte (materialak sortu eta banatu, informazio eta komunikazio kanpainak, foroak, tailerrak, kontsultak, ...).

Egokia erabakitzen den kasuetan prozesu horiek herritarren botazioarekin amaituko dira eta horiek egiteko datak diseinua egiterakoan zehaztuko dira.

Helburuak:

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat lurralderako estrategikoak diren proiektuetan herritarren parte hartzea bermatzea.
- b. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako parte hartze prozesuak eta herri kontsultak aztertzea eta martxan jartzea.



Ekintza orokorrak:

Ekintzak	Urteak	2012	2013	2014	2015
Gipuzkoako <u>proiektu estrategikoak identifikatu</u>					
Gipuzkoa mailan eragina izango duten <u>eskualde mailako proiektu estrategikoak identifikatu</u>					
Parte hartzeko prozesuak diseinatu eta horiek gauzatzeko baldintzak sortu					
Gipuzkoako proiektu estrategikoen <u>parte hartzeko prozesuak eta kontsultak gauzatu</u>					
Gipuzkoa mailan eragina izango duten eskualde mailako proiektu estrategikoen parte hartzeko prozesuak eta kontsultak gauzatu					
Eskatutako prozesuak martxan <u>jartzeko protokoloa diseinatu</u>					
Aurrera egitea erabakitzen direnekin plangintzan integratu eta prozesuak diseinatu eta prozesuak eta kontsultak gauzatu					
Prozesuak baloratu eta sistematizatu					
Foru araua baloratu eta aldian behin berregokitu: legea martxan <u>jartzearen balantzea</u>					
Aldian behin foru arauaren aldaketa egitea erabaki					
Lege berriarekin parte hartze prozesua diseinatu eta egin					
Aldaketa egin					



## **2. Parte hartzearen zeharkakotasuna Foru Aldundian**

Zeharkakotasunaren ikuspegia beharrezkoa izango da legegintzaldi guztian zehar: alde batetik, zeharkako guztiak kontuan hartuta Kabineteak modu artikulatuan funtziona dezan lortu behar da, eta horretarako, Kabineteak egiten dituen ekintza guztietan zeharkakoak modu sakonean txertatuko ditu. Horrek esan nahi du, Kabineteak zuzendaritza guztiek, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak barne, gainerako zeharkakoak txertatu behar dituztela bere zereginetan. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzak praktika eta kultura instituzionala pixkanaka aldatuz joan behar da eta modu progresiboan parte hartzeko ikuspegia sartzen joan behar da gauzak egiteko moduan. Hasieran departamentu bakoitzak departamenturako garrantzitsua den prozesua lehenetsiko du, praktika berriak garatzen joateko eta esperientzia hartzen joateko. Gerora, gaitasunaren eta aukeraren arabera, beste eremu eta prozesu batzuetara irekiko du bere zeregina. Urte honetan zehar formazioa prozesuan izango da, hau da, parte hartzeko departamentuak emandako aholkularitzan zentratuko da eta prozesu desberdinen diseinu metodologikoan.

Helburuak:

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek herritarren parte hartzea bere egitea ~~eta beraien esparruan sustatzeko ekintzak zehaztea eta modu progresiboan departamentuko sisteman integratzea.~~
- b. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztietan, zeharkakoak modu sistemikoan integratzea.
- c. Lanaren dimentsioaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundian parte hartzea dinamizatzeko lantaldea sortzea.



Ekintza orokorrak:

Ekintzak	Urteak	2012	2013	2014	2015
Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako prozesu gakoak eta urteko lehentasunak identifikatu					
Identifikatutakoetatik parte hartzeko prozesuak izango direnak diseinatu eta gauzatu					
Trebakuntza eta aholkularitza eman departamentuei					
Departamentu bakoitzak parte hartzeko prozesu bat gauzatu gutxienez					
Departamentu bakoitzak, jarritako lehentasunen arabera, parte hartzeko prozesu nagusienak pixkanaka eta modu parte hartzailean gauzatuko ditu					
Herritarrekin zuzenean zerikusia duten departamentuetako egungo programak berrikusi (esate baterako, agenda 21) partaidetzaren ikuspegitik egokitzeko (sustatu, birbideratu, itxi, ...)					
Departamentuen artean esperientziak trukatu eta ikasi					
Kabinetearen funtzionamendua artikulatu eta zeharkako bakoitza (parte hartzekoa barne) egiten den lan-prozesu bakoitzean gauzatu					
Protokolo instituzionaletan zeharkakoak kontuan hartu					
Lauko lantaldea sortu (3 teknikarirekin)					
Seiko lantaldea sortu (2 teknikari berri)					
Zortziko lantaldea sortu (2 teknikari berri)					
Laneko prozesuak diseinatu, gauzatu eta egokitu					
Prozesuak baloratu eta sistematizatu					
Foru batzordea osatu eta martxan jarri (Kabinete burua, Herritarren Partaidetzarako foru zuzendaria eta departamentu bakoitzeko pertsona bat)					
Gizarte kontseilua osatu eta martxan jarri (Herritarren Partaidetzarako foru zuzendaria, eskualde guztietako eragileak eta Aldundiko kideak)					



### **3. Komunikazioa, feedback-a eta zuzeneko eragina**

Komunikazio eta feedback lana sei helbururen bidez eramango da aurrera. Hiru helburu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta herritarren arteko komunikazioarekin lotuta daude eta beste hirurak feedback-ari eta eraginari lotuak, hau da, herritarrek zein modutan berrelikatu eta eragin dezaketen Gipuzkoako Foru Aldundiaren zeregina.

Komunikazioaren kasuan, Kabineteko komunikazio taldearekin koordinazio estuan eramango da aurrera eta modu sistemikoan, hau da, plan zehatzak diseinatuko dira euskarriekin eta Gipuzkoa mailan nahiz eskualde mailan ezarriko dira urtean zehar. Udalekin eta elkarteekin ere koordinazio zuzena egongo da sortzen ari diren sareen bidez, diskurtso artikulatua eta koherentea egin dezaten eragile instituzional guztiek. Orokorrean, alde batetik, oinarritzko diskurtsoa egituratuko da eta lan egiteko modu koherentea jarriko da martxan, horrela, Aldundiko edozein departamentuk, zeharkakoa izan edo ez, egiten dituen ekintza guztietan, Aldundiko parte hartzeari buruzko posizionamendua eta oinarritzko edukiak ezagutzera eman ditzan.

Aldi berean, Aldundia gazteei "zabalduko" zaie eskoletako bisiten edo jardunaldien bidez, horrela, erakundeak "in-situ" eta gertutik ezagutzeko aukera izanik.

Bestalde, lan-sistemak ezarriko dira, teknologia berriak kontuan hartuz eta sarean egituratuta. Hauek bide eta mekanismo egonkorak izango dituzte, Aldundiaren ekintza eta zereginen inguruan, herritarrek proposamenak egiteko eta berrelikatzeke.

Azkenik, herritarren eragin zuzenari begira bi prozesu nabarmenduko ditugu: ~~lehenengoa, lurralde historikoaren mailan, herritarrek definitutako politika eta lehentasunak, Aldundiaren posizionamendurako oinarritzkoak izango direnak. Bigarrena, "Herritarrekin batera" programa. Bertan, herritarren eta Aldundiaren arteko aldi behingo topaketak egiteko egutegia ezarriko da (eskualde bakoitzean bi urtetik behin). Topaketa horiek herritarrentzat irekiak izango dira eta diputatu nagusiak, eskualdeetako batzarkideek eta Kabineteko eta beste departamentuetako ordezkari batzuk parte hartuko dute. Horietan jendeak Aldundiarekin edozein arazo, gai edo bere lurralderako interesgarria izan daitekeen proposamenei buruz hitz egin edo eztabaidatu ahal izango da eta errespetua eta eraginkortasunaren printzipioak izango dira muga bakarrak.~~

Helburuak:

Komunikazioa

- a. Herritarrek jakitea, alde batetik Gipuzkoako erakundeek (Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek) herritarren parte hartzean egindako apustua, eta, bestetik, parte hartzea zer den eta nola egiten den.
- b. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duena modu iraunkorrean eta gardenean herritarrei komunikatzea eta herritarrek hori sentitzea.
- c. Gazteak instituzioen oinarritzko funtzionamendua ezagutzea, gerturatzea eta hurbiltasuna modu naturalean sentitzea.

Herritarren Feedback-a

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura operatiboari buruz herritarrak informatzeko komunikazio-bide zuzenak sortzea horietatik ekarpenak eta proposamenak jasotzeko.
- b. Gipuzkoako Foru Aldundiko politika publikoak zehazteko herritarren iritzia, proposamenak eta lehentasunak kontuan hartzea.
- c. Herritarrekin eta herrietako erakundeekin aurrez aurreko elkarrizketa zuzena egiteko, lurralde mailako sistema bat planifikatzea.





**Ekintza orokorrak:**

Ekintzak	Urteak	2012	2013	2014	2015
Gipuzkoako Foru Aldundiko komunikatzaileekin batera kanpaina diseinatu eta bultzatu, herritarrei egindakoaren emaitzen berri emateko					
Herritarrentzat beharrezkoa den oinarritzko informazioa identifikatu eta euskarri desberdinak, erraz eta erabilgarriak diseinatu eta egin (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta parte hartzearen inguruan)					
Legegintzaldi honetako Gipuzkoako Foru Aldundiaren "gakoak" eta "diskurtsoa" identifikatu					
Teknologia berrien bidez, herritarren sarea eta udalen sarea kontuan hartuta, informazio sistema diseinatu eta martxan jarri. Herritarrek bide zuzena eta erraza izan dezaten ekarpenak edota balorazioa egiteko					
Parte hartzeko jardunaldiak antolatu eta gauzatu					
Hezkuntza sailarekin koordinazioa egin eta bisiten programazioa diseinatu eta egokitu					
"Herritarrekin batera"(izena duen sistema) diseinatu eta martxan jarri. Diputatu nagusiak, batzarkideak eta Kabineteko beste kideak modu deszentralizatuan eskualde bakoitza bisitatu eta herritarrekin zuzenean elkarrizketatu daitezten					
Aldundiarenak diren konpetentzietan herritarrek Gipuzkoarako lehentasun eta politiken proposamenak definitu					
Hurrengo legegintzaldirako Aldundiak garatu beharreko politiken inguruan herritarren posizionamendua definitu					
Aurrekontuen berri ematea eskualdez eskualde					
Prozesuak baloratu eta sistematizatu					



#### 4. Udalak

Kasu honetan, alde batetik, helburu batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen sarearen osaera eta funtzionamendua zehaztuko dute, herritarren parte hartzeko praktika eta kultura herri mailan sustatzeko, herrietan udalaren eta herritarren arteko parte hartzea modu naturalean eman dadin. Beste batzuk, berriz, baliabide ekonomikoekin lagunduta etengabeko sistematizazio lana nola garatu zehaztuko dute. Aurrekoa lortzeko elkarren artean osagarriak izango diren estrategia desberdinak garatuko dira eragile instituzional desberdinekin. Besteak beste, udalen arteko parte hartzerako osatuko den sareak modu autonomoan, urtetik urterako lan-planak diseinatuko ditu Gipuzkoako herritarren parte hartzearen praktika eta gaitasuna sendotzen joan dadin. Udal bakoitzaren ekintza indibidualetatik hasiko da eta gero eta gune gehiago sortuko dira ekintzak elkarrekin egiteko.

Sarea bera izango da horretarako esleitutako baliabideak kudeatuko dituena.

Helburuak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen arteko parte hartzeko sarea

- a. Udalen arteko sarea artikulatu, antolatu eta koordinatu, udalek herritarren parte hartze zuzena sustatzeko duten gaitasuna indartzeko.
- b. Erakundeetan parte hartze prozesuak bideratzen dakien masa kritikoa lortzea.
- c. Udalekin eskualde mailako ekintzak artikulatu, antolatu eta koordinatu, herritarrekin eta gizarte mugimenduekin orokorrean, parte hartzeko espazioak bultzatzeko.

Sistematizazioa

- a. Orain arte Gipuzkoan, maila instituzionalean, egindako parte hartzeko esperientziak dokumentatu eta sistematizatzea.
- b. Legegintzaldi honetan martxan jarriko diren esperientzia berriak elkarri ezagutzera eman, sistematizatu, bertatik ikasi eta hobetu, kanpoko esperientziak kontuan hartuta.
- c. Parte hartze sistema modu eraginkor eta deszentralizatuan kudeatzeko tresna informatikoa sortu. Tresnak sarbide erraza izango du eta elkarrengandik ikasteko aukera eskainiko du.

Finantzaketa

- a. Udalek herritarren parte hartzea sustatzeko egiten dutena indartu elkarrekin finantzatuz.
- b. Finantzaketa-sistema udalekin batera diseinatzea, gerora sisteman hartzen diren erabakietan ere udalek parte har dezaten.



Ekintza orokorrak:

Ekintzak	Urteak	2012	2013	2014	2015
<u>Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen parte hartze sarea antolatu eta martxan jarri</u>					
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen parte hartze sarearen oinarri teknologikoa sustatu (web orria, datu baseak, dokumentazio sistema, komunikazio sistema, baliabideak, ...)					
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen parte hartze sarearen jarraipena					
Elkarrengandik ikasteko prozesua					
Beharrak diagnostikatu					
Trebakuntzaren sistema antolatu (gaia, lurraldea eta arduradunaren bidez)					
Trebakuntzaren jarraipena (tailerrak, moduluak, ...)					
Baliabide metodologikoak sortu, bildu eta erabilera antolatu eta martxan jarri (erabilera irekia)					
Udal desberdinen artean prozesuak gauzatu (urteko plangintza eta diru laguntzen arabera)					
Eskualdeko prozesuak gauzatu (urteko plangintza eta diru laguntzen arabera)					
<u>Parte hartzeko esperientziak erregistratzeko oinarrizko sistema definitu eta bultzatu</u>					
Parte hartzeko diru laguntzak martxan jarri					
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen artean parte hartzeko diru laguntzak egokitu eta indartu					
Prozesuak baloratu eta sistematizatu					



### 5. Herri erakunde eta mugimenduak

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zibilerao artikulazio guneak sortzea erraztuko du, alde batetik mugimenduen arteko elkarrizketak bultzatuko dira, lehenengo maila orokorrean eta gero eskualdeka. Beste aldetik, gizarte mugimenduaren ikuspegi orokorra indartuko da eta elkarrekin ikasteko guneak irekiko dira. Prozesu horiek guztiak modu koherentean diseinatu eta martxan jarriko den sistema informatiko batekin lagunduta egongo dira.

Helburuak:

- a. Herri mugimendu eta gizarte zibilaren subjektu desberdinen artean "jakintzen elkarrizketen" praktika martxan jartzea.
- b. Lurraldeko elkartearen gaitasuna sustatzea lurraldeko ikuspegi zabala izan dezaten eta gauzak elkarren artean egin ditzaten.
- c. Udalekin eskualde mailako ekintzak artikulatu, antolatu eta koordinatzea, gizarte mugimenduekin orokorrean, edota sektoreka, parte hartzeko espazioak bultzatzeko.

Ekintza orokorrak:

	Urteak	2012	2013	2014	2015
<b>Ekintzak</b>					
Gipuzkoa mailako "jakintzen elkarrizketak" topaketak antolatu					
Eskualdeko "jakintzen elkarrizketak" topaguneak antolatu					
Mugimenduen artean elkarrekin egindako ekintzak					
Europako konferentzia					
Elkarteen artean elkarlana bultzatu (urteko plangintza eta diru laguntzen arabera)					
Eskualdeko prozesuak gauzatu (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen sarearekin koordinatua)					
Elkarteen parte hartze sarearen oinarri teknologikoa sustatu (web orria, datu baseak, dokumentazio sistema, komunikazio sistema, baliabideak, ...)					
Elkarrekin ikasi eta jardunaldiak					
Prozesuak baloratu eta sistematizatu					